

INFO GAZTEA

Gradu Ikasketak Arte Irakaskuntza

Euskal Herriko Unibertsitateko graduiko ikasketak Arabako Gazteen Dokumentazio eta Informazio Lurraldeak bildutakoak. Bilduma honetan agertzen diren ikasketak Euskal Herrian ematen direnak dira. Baita estatuko beste unibertsitate batzuen aipamenarekin ere.

Azken eguneratzea: 2024ko irailean

Arte Irakaskuntzak

| | |
|--|----|
| • Arte Dramatikoa | 3 |
| • Arte Eszenikoen Gradua | 7 |
| • Arteko Gradua | 9 |
| • Barne Diseinuko Gradua | 12 |
| • Bideojokoetako eta Animazio Arteko Gradua | 15 |
| • Dantzako Gradua | 17 |
| • Diseinu Grafikoko Gradua | 20 |
| • Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Gradua | 23 |
| • Moda Diseinuko Gradua | 26 |
| • Sorkuntza eta Diseinuko Gradua | 29 |

ARTE DRAMATIKOA

Arte Dramatikoko ikasleak ondorengo espezialitatetatik bat aukeratu beharko du:

1.- *Eszena zuzendaritza eta dramaturgia*: ondorengoak aztertzen ditu: gorputzaren ezagutzarako teknikak, gorputz adierazpena, ahots teknika, mintzaera, musika-hizkuntza, inprobisazio teknikak, interpretazio teknikak maskara erabiliz, karakterizazioa, egoeren analisia, lengoia eszenikoa, dramaturgia, teoria dramatikoa, literatura dramatikoa, interpretazio estiloen historia, pertsonaiak eraikitzea, jokaespazioa, antzerkirako makineria, ikusmen-komunikazioa eta -pertzepzioaren historia, antzezpena, antzezlarien zuzendaritza, ideia estetikoaren historia, argiztapena, estetika, antzerkiaren ekoizpena eta kudeaketa, antzerkiaren antropologia, antzeppen tailerrak, idazkera dramatikoa.

2.- *Eszenografia*: espezialitate honen edukiak ondorengoak dira: dramaturgia, estetika, eszenografiaren historia, lengoia eszenikoa, teoria dramatikoa, maskara, karakterizazioa, marrazketa lineala, geometria deskribatzailea, argiztapena, maketagintza, argiztapenerako materialak, perspektiba eszenikoa, argiaren teoria, antzeppen tailerrak, antzerkirako makineria, ikusmen-komunikazioa eta -pertzepzioaren historia, estiloen historia, eraikuntza eszenografikoen teknikak, literatura dramatikoa, antzezpena.

3.- *Interpretazioa*: Ondorengoak aztertzen ditu: mintzaera, dikzioa, ahozko adierazpena, akrobazia, dantza, gorputz adierazpena, gorputzaren ezagutzarako teknikak, antzerki esgrima, antzezlarien entrenamendua, inprobisazio teknikak, interpretazio teknikak, interpretazioa maskara bidez, interpretazio tailerrak, musika-hizkuntza, dramaturgia, literatura dramatikoa, teoria dramatikoa, arte eta komunikazioaren teoria, ahots teknika, egoeren analisia, pertsonaiak eraikitzea, musikaren historia orokorra, interpretazio estiloen historia, pantomima, interpretazioa objektu bidez, interpretazioa txotxongilo bidez.

SARTZEKO BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleek egin ahalko dute arte dramatikoko goi-mailako arte-ikasketak egiteko sarbide-proba espezifikoa:

- Batxilergo-titulua izatea.
- 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Goi-mailako arte-ikasketetan sartzeko ezarritako betekizun akademikoen ordeko heldutasun-proba gainditzea edo lanbide-heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak egiteko sarbide-probaren zati komuna gainditzea.

* **Ikasketa-baldintzak betetzen dituztenentzako sarbide-proba**: lehenbizi bi ariketa teoriko egingo dituzte:

- Testu dramatikoa baten azterketa: testua probaren momentuan jakinaraziko da, Dantzertiren web orrian proposatzen diren aukeren artean.
- Sormen-idazketaren ariketa: doinu gabeko eszenifikazioa da eta hautagaiak aipaturiko eszenaren elkarrizketak sortarazi egin beharko du.

Ondoren, hiru ariketa praktiko egingo dituzte, eta, horien bidez, gaitasun artistikoak ebaluatuko dira, kontuan hartuta izangaien gorputz-, ahots- eta interpretazio-gaitasunak.

- A ariketa: izangaiek, taldetan banatuta, mugimendu eta gorputzeko ariketa praktiko bat egingo dute, epaimahaikide baten zuzendaritzapean.
- B ariketa: izangai bakoitzak hurrengo hiru probak egin beharko ditu: abesti melodiko bat aurkeztu (berak nahi duena), poema dramatizatu bat errezitatu eta epaimahaikideek momentuan emandako testu baten ozeneko irakurketa.
- C ariketa: izangai bakoitzak antzerki-bakarrizketa bat interpretatuko du, epaimahaiak aurrez ezarritakoen artean.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arte Dramatikoko ikasketek 4 urteko iraupena dute eta 240 kreditu.
Dantzertik Interpretazioko espezialitatea ematen du.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Teoria eta Historia. Metodoak eta Sistemak. 6 kreditu
- . Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria I. 4 kreditu
- . Euskal Antzerkia. Euskal Eszenaren Historia. 4 kreditu
- . Dramaturgia. 6 kreditu
- . Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak I. 8 kreditu
- . Antzerki Fisikoa I. 8 kreditu
- . Interpretazioa I. 10 kreditu
- . Ahotsa I. 5 kreditu
- . Musika eta Kantua I. 5 kreditu
- . Practicum. 4 kreditu

Bigarren maila:

- . Literatura Dramatikoaren Historia eta Teoria II. 4 kreditu
- . Testu Analisia. 3 kreditu
- . Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak II. 4 kreditu
- . Antzerki Fisikoa II. 6 kreditu
- . Interpretazioa II. 8 kreditu
- . Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra I. 4 kreditu
- . Diziplinarteko Proiektuen Laborategia I. 6 kreditu
- . Ahotsa II. 5 kreditu
- . Musika eta Kantua II. 4 kreditu
- . Karakterizazioa. 3 kreditu
- . Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailtza I. 3 kreditu
- . Practicum II. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Hizkuntza eta Ikus-entzunezkoen Narratiba. 3 kreditu

- . Dantzari eta Mugimenduari buruzko Analisia eta Teknikak III. 3 kreditu
- . Akrobazia eta Zirkuko Teknikak I. 4 kreditu
- . Artearen Komedia. 3 kreditu
- . Clown-a. 3 kreditu
- . Interpretazioa Ikus-entzunezkoan. 4 kreditu
- . Interpretazioa III. 6 kreditu
- . Antzezte-adierazpen Garaikideen Tailerra II. 5 kreditu
- . Diziplinarteko Proiektuen Laborategia II. 4 kreditu
- . Ebakera eta Ahozko Adierazpena I. 6 kreditu
- . Antzezte-lekuari Aplikatutako Teknologiak. 3 kreditu
- . Antzezte-proiektuen Ekoizpena eta Kudeaketa. Ekintzailtza II. 3 kreditu
- . Praktikak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Muntaketari buruzko Tailer Praktikoak I. 21 kreditu
- . Ebakera eta Ahozko Adierazpena II. 5 kreditu
- . Jantzera. 3 kreditu
- . Arte Eszenikoen Pedagogia. 4 kreditu
- . Praktikak. 6 kreditu
- . Ikasketa-bukaerako lana. 10 kreditu

LAN IRTEERAK

Arte Dramatikoko Goi-mailako ikasketak amaitzen duten ikasleak ondorengoetan lan egiteko gai izango dira: zineman, antzerki ofizial eta pribatuetan, telebistan, irratan, bikoizketa estudioetan, musika ikuskizunetan, telebista eta bideo ekoiztetxetan, zirkuetan, jolas-parkeetan eta kultur zentroetan.

Arte Dramatikoko tituludunak egin ditzakeen funtzioak ondorengoak izango dira: eszena zuzendariak, dramagileak, antzerki kritikariak, ikuskizun sortzaileak, irakasleak, kultura begiraleak, antzezleriak, bikoiztaileak eta eszenografoak.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZENTROAK

- * Dantzerti. Bilbao
- * Balear Uharteetako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Valentziako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * EOLIA Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola (Bartzelona)
- * Kanariar Uharteetako Aktore Eskola - Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola (Las Palmas)
- * Kanariar Uharteetako Aktore Eskola - Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola (Tenerife)
- * Galiziako Arte Dramatikoko Eskola Nagusia
- * Gaztela eta Leongo Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Gaztela Mantxako Arte Dramatikoko Goi Eskola
- * Kordobako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Malagako Arte Dramatikoko Goi Eskola
- * Murtziako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Sevillako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Extremadurako Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola

- * Asturiaseko Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola
- * Antzerkiaren Institutua (Bartzelona)
- * Madrilgo Arte Dramatikoko Goi-mailako Eskola Erreal

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

[Dantzerti](#)

Info Gaztea

ARTE ESZENIKOEN GRADUA

Gradu hau sektoreko errealitate profesionalera egokitzen da eta Arte Eszenikoetako profesionalak prestatzeko diseinaturik dago, aktoreak, gidoilariak eta zuzendari eszenikoak besteak beste.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoen sarbide-proba.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arte Eszenikoen Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

Antonio de Nebrijako ikasketa plana

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Ahotsaren Oinarriak I. 6 kreditu
- . Literatura eta Sorkuntza. 6 kreditu
- . Gorputz Heziketa I. 6 kreditu
- . Zinearen Historia. 6 kreditu
- . Arte Dramatikorako Sarrera. 6 kreditu
- . Zuzenbiderako Sarrera. 6 kreditu
- . Antzerkiaren eta Musikaren Historia. 6 kreditu
- . Interpretaziorako Oinarrizko Tresnak. 6 kreditu
- . Gorputz Heziketa II. 6 kreditu
- . Gaitasunen Garapenerako Mintegia. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Ahotsaren Oinarriak II. 6 kreditu
- . Ekonomiaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Komunikazioaren Teoria. 6 kreditu
- . Enpresa eta honen Ingurunea. 6 kreditu
- . Antzerki Klasikoa. 6 kreditu
- . Kamera Aurreko Interpretazioa. 6 kreditu
- . Artearen Historiarako Sarrera. 6 kreditu
- . Hizkuntza Modernoak. 6 kreditu
- . Eszenografia eta Arte Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Antzerki Garaikidea. 6 kreditu
- . Gaitasunen Garapenerako Mintegia II. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Argazkigintzako Zuzendaritza: Kamera eta Argiztapena. 6 kreditu
- . Edizioa eta Muntaketa. 6 kreditu
- . Zinema-gidoiaren E4gitura. 6 kreditu

- . Elkartasun eta Partaidetza Espirituaren Garapena. 6 kreditu
- . Ekoizpen Zinematografikoa eta Ikus-entzunezkoa. 6 kreditu
- . Interpretazio eta Sorkuntza Eszenikoaren Tailerra. 6 kreditu
- . Soinu Ekoizpena. 6 kreditu
- . Enpresako Gaitasunen Garapenaren Ebaluazioa. 18 kreditu
- . Interpretazioaren Teknikak, Estiloak eta Generoak. 6 kreditu
- . Testu Dramatikoen Irakurketa eta Analisia. 6 kreditu
- . Hizkera Eszenikoa. 6 kreditu
- . Kantuaren Oinarriak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Interpretazio eta Sorkuntza Eszenikoaren Tailerra II. 6 kreditu
- . Proiektuen Ekoizpenaren Tailerra. 6 kreditu
- . Gaitasunen Garapenerako Mintegia III. 6 kreditu
- . Interpretazio eta Sorkuntza Eszenikoen Proiektua. 6 kreditu
- . Aktoreen Zuzendaritza. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 6 kreditu

LAN IRTEERAK

- . Dramaturgo edo sortzaile eszenikoa, zinema, telebista edo ikus-entzunezkoen gidoilaria.
- . Zuzendari eszenikoa.
- . Ekoizle/kudeatzailea.
- . Antzerki, zinema edo telebistako aktorea.
- . Iragarkietarako aktorea.
- . Arte dramatikoko irakaslea.
- . Gizarte- eta kultura-sustatzailea.
- . Eszenografoa eta arte zuzendaria.

Arte Eszenikoen Graduko ikaslea, profil sortzailea, inizatiba gaitasuna, lidergoa eta pertsona arteko komunikazioa eskatzen duten eremu profesionaletan lan egiteko gai izango da, nahiz eta antzerkia edo ikuskizunetako industriarekin zerikusirik ez izan.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Antonio de Nebrija Unibertsitatea
- * Gironako Unibertsitatea
- * Rey Juan Carlos Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Hezkuntza](#) eta [Lanbide](#) [Heziketako](#) [Ministerioa](#)

ARTEKO GRADUA

Honako hauek dira Arte Ederretako Fakultateen helburu nagusiak: kultura- eta arte-ondarea zaindu eta hedatzea, estetikaren hezkuntza, arte hutsaren eta estetika aplikatuaren inguruko esparru profesionaleri buruzko prestakuntza tekniko-zientifikoa edo irakaskuntza grafiko-plastikoa.

Arte Plastikoen ikerketa-, entsegu- eta saiakera-arloko informazioaz eta kreatibitatearen esparruan nagusitzen diren legez jantzen dituzte ikasketa hauek, gradu hau ikasi eta beronen inguruan jarduten denari.

Askotariko artista plastikoak prestatzea du xede gradu honek. Halaber, praktika artistikoari eta bere aplikazioen adierazpenei buruzko prestakuntza teoriko, praktiko eta metodologikoaz jantzi.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
 - Goi-mailako Heziketa Zikloak.
 - 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.
 - * Gainera Arte Ederretako Fakultateek, sartu nahi dutenei, arte plastikoetarako gaitasun pertsonalak neurtzeko azterketak egin ahal izango dizkiete, inoiz ezagutzak neurtzekoak izango ez direnak.
- Horrelakoetan, balorazio-irizpidea izango da: unibertsitatean sartzeko probaren emaitzaren eta gaitasun pertsonalak neurtzeko aipatutako ebaluazio-azterketaren emaitzaren batez bestekoa.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Arteko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA: UPV/EHUko ikasketa-plana

| Ikasmailak | Oinarrizko prestakuntza | Nahitaezkoak | Hautazkoak | Gradu amaierako lana | Guztira |
|------------|-------------------------|--------------|------------|----------------------|---------|
| 1 | 60 | 0 | 0 | 0 | 60 |
| 2 | 0 | 60 | 0 | 0 | 60 |
| 3 | 0 | 42 | 18 | 0 | 60 |
| 4 | 0 | 18 | 24 | 18 | 60 |
| Guztira | 60 | 120 | 42 | 18 | 240 |

* Lehen eta bigarren mailak Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren eta Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberitzeari buruzko Graduaren berdinak dira.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Artea eta Teknologia I. 9 kreditu

- . Eskultura I. 9 kreditu
- . Irudigintza I. 9 kreditu
- . Irudi Laborategia. 9 kreditu
- . Materialen Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura I. 9 kreditu
- . XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Arte eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak. 9 kreditu
- . Artearen Historia Orokorra. 6 kreditu
- . Eskultura II. 9 kreditu
- . Irudigintza II. 9 kreditu
- . Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura II. 9 kreditu
- . Teknologiak eta Prozesuak. 9 kreditu

Hirugarren maila:

- . Arte eta Teknologia III. 6 kreditu
- . Eskultura III. 6 kreditu
- . Historia: Azken Joerak. 6 kreditu
- . Irudigintza III. 6 kreditu
- . Laborategia A. 6 kreditu
- . Laborategia B. 6 kreditu
- . Pintura III. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Arte Eremua: Testuak eta Testuinguruak. 6 kreditu
- . Hezkuntza eta Bitartekaritza Artean. 6 kreditu
- . Sorkuntza Artistikoaren eta Profesionalizazioaren Prozesuak eta Metodologiak. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 18 kreditu

Hizkuntzak: euskara, gaztelania eta ingelesa. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte:

- . Pintura eta Grafikako minorra.
- . Media-art eta Teknologiako minorra.
- . Eskulturako minorra: Testuinguruak eta Lekuak.

LAN IRTEERAK

Zaharberitze-lanak aukeratzen dituzte Arteko graduatu gehienek lanbide gisa. Irtenbide honekin batera, Arte Grafikoetakoak eskaintzen ditu lanpostu gehien, eta beste guztietan, berriz, artistaren ahalmen sortzailea eta gaitasuna garrantzitsuago da titulazioak berak irakasten duena baino.

Era askotakoak izan daitezke gradu honen lan-irtenbideak:

- Irakaskuntza, Arte Aplikatu eta Lanbide Artistikoen Ikastegietan.
- Marrazketako irakasleak.
- Margolariak.
- Zaharberritzaileak.
- Eskultoreak.
- Diseinatzaileak.
- Arte Kritika
- Arte Historiografia.

Batik bat, ondorengo sektoreek behar izaten dituzte graduatu hauek: Argitaletxeak, Industria Diseinuko Zentroak, Publizitate Agentziak...

Zaharberitze, irakaskuntza eta museologiaren arloetan ere deitzen da oposiziorik.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
- * Kataluniako Unibertsitate Irekia (online)

Ikasketa hauek estatuko beste hainbat unibertsitatetan ez dute izen hau izango, baizik eta unibertsitate bakoitzak aukeratutakoa. Esate baterako:

- . Grado en Artes y Diseño
- . Grado en Bellas Artes

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)
[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)
[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

BARNE DISEINUKO GRADUA

Ikasketa hauen helburu nagusia diseinuaren profesionalak sortzea da. Profesional hauek, industriako zerbitzu eta ekoizpenaren sorkuntza, garapena, erabilera eta kontsumoa hobetu beharko dute. Horregatik, diseinuko ikasketa hauek, gaitasun artistiko, teknologiko eta pedagogikoak garatuko dituzte, eta baita ikerkuntzarako trebetasuna ere.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorako sarbide-proba.

SARBIDE-PROBA

Ikasketa hauen sarbide-probaren helburu nagusia ikasleen heldutasuna, ezagutzak eta ikasketak probetxuz burutzeko gaitasuna ebaluatzea da. Sarbide-proba gainditzeak ikasketa hauek egiten diren estatuko edozein zentrotan sartzeko aukera emango du.

Bi ariketaz osatutako proba baterako deialdia egingo da urtero:

1. Lehenengo ariketan ondorengo materiak ebaluatuko dira: Gaztelera eta Literatura, Historia, Matematikak, Fisika eta Kimika eta Atzerriko Hizkuntza. Ikasleak hauetatik hiru aukeratu beharko ditu eta gehienez ere 60 minutu izango ditu irakasgai bakoitzaren azterketa burutzeko. Berezko hizkuntza duten komunitateek lehenengo ariketa honetan hizkuntza horren azterketa egiteko aukera izango dute.

2. Bigarren ariketak bi zati izango ditu:

a) Ikasleak hiru dimentsioko modelo baten adierazpena egin beharko du, marrazketa artistikoko teknikak eta adierazpen tekniko langoiak erabiliz. Ariketa honek, gehienez ere, bost ordu iraungo du.

b) Kolore konposizio-ariketa, teknika librea erabiliz. Ariketa honek, gehienez ere, ordu bete iraungo du.

Ikasle bakoitzak, gehienez ere, lau aldiz egin dezake sarbide-proba.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Barne Diseinuko graduko ikasketek 4 urte irauten dute eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK (Vitoria-Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi-mailako Eskolako ikasketa-plana)

Lehenengo maila:

- . Diseinuari Aplikatutako Zientzia. 4 kreditu
- . Materialak. 6 kreditu
- . Interiorismoaren Teknologia I. 8 kreditu

- . Diseinu-oinarriak. 10 kreditu
- . Oinarrizko Kolorea. 4 kreditu
- . Marrazketa Artistikoa. 6 kreditu
- . Irudikapen-sistemak. 6 kreditu
- . Teknologia Digitala. 4 kreditu
- . Forma eta Bolumena. 6 kreditu
- . Arteen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Eraikuntza I. 5 kreditu
- . Eraikuntza II. 5 kreditu
- . Elektrizitate eta Komunikazio-instalazioak. 2 kreditu
- . Instalazio Sanitarioak. 2 kreditu
- . Interiorismoaren Teknologia II. 8 kreditu
- . Argazkilaritza eta Ikus-entzunezkoak. 4 kreditu
- . Proiektuak I. 9 kreditu
- . Proiektuak II. 9 kreditu
- . Antolamendua eta Marketina. 4 kreditu
- . Barnealdean Diseinuaren Historia. 6 kreditu
- . Diseinuaren Kultura. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Akustika eta Argiztapena. 3 kreditu
- . Girotze-instalazioak. 3 kreditu
- . Eraikuntza III. 6 kreditu
- . Eraikuntza IV. 6 kreditu
- . Diseinu Bioklimatikoa. 2 kreditu
- . Kalitatearen Kontrola. 2 kreditu
- . Neurketak eta Aurrekontuak I. 3 kreditu
- . Neurketak eta Aurrekontuak II. 3 kreditu
- . Araudia eta Diseinua. 2 kreditu
- . Proiektuak III. 9 kreditu
- . Proiektuak IV. 9 kreditu
- . Segurtasuna eta Osasuna. 2 kreditu
- . Lanbide-orientazioa. 4 kreditu

Laugarren maila:

- . Diseinu eszenikoa eta ekitaldiak I. 4 kreditu
- . Diseinu eszenikoa eta ekitaldiak II. 4 kreditu
- . Lanaren kontrola eta kudeaketa. 2 kreditu
- . Maketagintza birtuala. 6 kreditu
- . Proiektua eta dokumentazioa. 2 kreditu
- . Kanpo Praktiak. 18 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 18 kreditu

LAN IRTEERAK

Barne diseinatzaile oro eraikuntza teknikariek lan egiteko gai izango da, eta horrela eraikuntza prozesu guztietan integratzeko aukera izango du. Bi bide profesionalerako aukera izango dute:

. Freelance.

. Espezialista merkataritza- edo industria-enpresa batean: eraikuntza enpresak, dekorazio enpresak, merkataritza guneen diseinua, altzari fabrikak, altzari eta dekorazio artikulua saldu eta banatzeko erakunde handiak, dekorazio dendak eta arkitektura estudioak.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZENTROAK

- * IDarte (Vitoria-Gasteiz)
- * IED Kunsthal Bilbao
- * Alacanteko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Alcoiko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Antonio Nebrija Unibertsitatea
- * Aragoiko Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Balear Uharteetako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Castelloko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Errioxako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Goi-mailako Diseinu Zentroa. Nafarroa
- * Kataluniako Goi-mailako Diseinu eta Arte Plastikoen Eskola
- * Madrilgo Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Meridako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Murtziako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Orihuelako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Valentziako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Zamorako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[IDarte](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

BIDEOJOKOETAKO ETA ANIMAZIOKO ARTEKO GRADUA

Bideojokoetako eta Animazioko Arteko Graduak arte digitaleko eta animazioko prestakuntza aitzindaria eskaintzen du, arlo artistikoa eta bideojokoak, joko aplikatuak, zinematikoak eta eduki digitala konbinatuz hainbat plataformatarako. Ikasleek 2D eta 3D arteari, jokoaren diseinuari, animazioari, gidoiari eta enpresa-kudeaketari buruzko gaiak ikasiko dituzte, ikasturte bakoitzean aplikatutako proiektu errealean bidez.

Gradu honen helburua da profesionalak prestatzea arte digitalaren adar desberdinetan, hau da: ilustrazioa edo concept art, modelatua/zizelkatua eta animazioa, diseinu digitaleko proiektuak eginez, animaziokoak edo mundu birtualak sortuz, beren ingurune eta pertsonaiekin, ez bakarrik bideojokoetarako edo joko aplikatuetarako, baita artearen, komunikazioaren, publizitatearen eta beste diziplina osagarri eta transektorial batzuen esparrurako ere.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorako sarbide-proba.

ONARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK UNERIZ Unibertsitatea

Lehenengo maila:

- . Marrazketa Tradizionala. 6 kreditu
- . Arte Kontzeptuala I. 6 kreditu
- . Sormena. 6 kreditu
- . Diseinu Grafikoa. 6 kreditu
- . Artearen eta Bideojokoaren Historia. 6 kreditu
- . Animazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Psikologia. 6 kreditu
- . 3D Modelatzearen Oinarriak. 6 kreditu
- . Jokoen Diseinua I. 6 kreditu
- . Proiektua I. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Arte Kontzeptuala II. 6 kreditu
- . Bideojokoaren Motorrak. 6 kreditu
- . Anatomia eta Modelatze Organikoa. 6 kreditu
- . 3D Animazioa I. 6 kreditu
- . Jokoen Diseinua II. 6 kreditu
- . Ikus-entzunezko Hizkuntza eta Narratiba. 6 kreditu
- . 3D Modelatzea I. 6 kreditu
- . Argiztapena eta Renderra. 6 kreditu
- . Interfazeen Diseinua. 6 kreditu
- . Proiektua II. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . 3D Modelatzea II. 6 kreditu
- . Zuzendaritza Artistikoa. 6 kreditu
- . 3D Animazioa II. 6 kreditu
- . Hautazkoa 1. 6 kreditu
- . Proiektua III. Urtekoa 12 kreditu
- . Testualizazio Aurreratua. 6 kreditu
- . Ingurune eta Mailetarako Diseinua eta Artea. 6 kreditu
- . Arte teknikoa. 6 kreditu
- . Hautazkoa 2. 6 kreditu
- . Proiektua III. Urtekoa 12kreditu

Laugarren maila:

- . Gradu Amaierako Lana. 12 kreditu

Ohar garrantzitsua: Unibertsitate titulu hau, indarrean dagoen legediaren arabera ofizialtasuna lortzeko zain dago

LAN IRTEERAK

- Concept artista/ ilustratzailea
- Modelatzailea, eskultorea
- Animatzailea, rigger 2D eta 3D
- Bideojokoen eta joko aplikatuen diseinatzailea
- Arte-zuzendaria
- Bideojokoetako soinu-diseinatzailea
- Ekintzailea eremu digitalean
- VFX-Ikus-efektuetarako konposizioa
- Sortzailea eta diseinatzailea edozein sektoretarako
- Ikus-entzunezko edukien ekoizlea
- Art Softwarearen sortzailea
- Gamifikazio digitaleko espezialista
- Sound designer, programatzailea, multimedia

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZENTROAK

* EUNERIZ Unibertsitatea

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[EUNERIZ Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

DANTZAKO GRADUA

Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen helburu orokorra profesionalen prestakuntza kualifikatua izango da, funtsezko oinarria den aurreko prestakuntza teknikitik abiatuta eta prestakuntza praktikoa, teorikoa eta metodologiko osoa dutelarik, diziplina honetako eremu profesional ezberdinetan integrazteko gaitasuna emango diena.

SARTZEKO BALDINTZAK

Honako eskakizun hauetako bat betetzen duten ikasleek egin dezakete Dantzako goi-mailako arte-ikasketak egiteko berariazko sarrera-proba:

- Batxiler-titulua izatea.
- Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarrera-proba gainditu izana.
- Goi-mailako arte-ikasketak egiteko eskakizun akademikoak egiaztatzearen ordeko heldutasun-proba edo lanbide-heziketako goi-mailako prestakuntza-zikloak egiteko sarrera-probaren zati komuna gainditu izana.

* **Sarrera proba:** epaimahaiak proposaturiko dantzaren inguruko testu baten azterketa idatzia egin beharko dute aurkezten direnak. Ondoren, ariketa praktikoak egin beharko dituzte:

- A ariketa: dantzako ikasketa profesionaletako azken mailako bi eskola izango dira. Epaimahaiak izendatutako adituek Dantza Klasikoko eskola bat eta Dantza Garaikideko beste bat emango dute.
- B ariketa: hautagaiek bariazio bat egingo dute, haien gaitasun artistikoa neurtzeko.
- C ariketa: izangaiek inprobisazio-proba bat egingo dute, epaimahaiak proposatutako musika-konposizio batean edo beste euskarri batean oinarrituz.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Dantzako Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak. Dantzertik Koreografia eta Interpretazioko espezialitatea eskaintzen du.

GINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK (Dantzertiko ikasketa plana)

Lehenengo maila:

- . Dantzaren Historia I. 3 kreditu
- . Dantzari Aplikatutako Anatomia, Biomekanika eta Patologiak. 4 kreditu
- . Dantza Klasikoaren Teknika I. 9 kreditu
- . Dantza Garaikidearen Teknika I. 9 kreditu
- . Mugimenduaren Azterketa. 3 kreditu
- . Konposizioa eta Inprobisazioa I. 3 kreditu
- . Sorkuntza-tailerrak, Estiloen Arabera I. 6 kreditu
- . Errepertorioaren Azterketa eta Praktika, Estiloen Arabera I. 6 kreditu
- . Interpretazio-tailerrak, Estiloen Arabera I. 10 kreditu
- . Dantzari Aplikatutako Musika I. 3 kreditu
- . Dantzaren Ikaskuntza eta Garapena. 4 kreditu

Bigarren maila:

- . Dantzaren Historia II. 3 kreditu

- . Dantzari Aplikatutako Fisiologia eta Nutrizioa. 2 kreditu
- . Dantza Klasikoaren Teknika II. 9 kreditu
- . Dantza Garaikidearen Teknika II. 9 kreditu
- . Konposizioa eta Inprobisazioa II. 3 kreditu
- . Sorkuntza-tailerrak, Estiloen Arabera II. 6 kreditu
- . Errepertorioaren Azterketa eta Praktika, Estiloen Arabera II. 6 kreditu
- . Interpretazio-tailerrak, Estiloen Arabera II. 10 kreditu
- . Dantzari Aplikatutako Musika II. 3 kreditu
- . Dramaturgia eta Eszenaratzea. 3 kreditu
- . Taldeen eta Erakundeen Psikologia. 2 kreditu

Hirugarren maila:

- . Artearen Filosofia. 3 kreditu
- . Gorputz Teknikak I. 2 kreditu
- . Dantza Klasikoaren Teknika III. 9 kreditu
- . Dantza Garaikidearen Teknika III. 9 kreditu
- . Konposizioa eta Inprobisazioa III. 3 kreditu
- . Sorkuntza-tailerrak, Estiloaren Arabera III. 6 kreditu
- . Errepertorioa Aztertzea eta Praktikan Jartzea, Estiloaren Arabera III. 6 kreditu
- . Interpretazio-tailerrak, Estiloaren Arabera III. 10 kreditu
- . Ahotza eta Kantua. 2 kreditu
- . Diziplinarteko Proiektuen Laborategia I. 3 kreditu

Laugarren maila:

- . Artearen eta Ikuskizunaren Historia. 3 kreditu
- . Gorputz Teknikak II. 3 kreditu
- . Dantza Klasikoaren Teknika IV. 5 kreditu
- . Dantza Garaikidearen Teknika IV. 5 kreditu
- . Diziplinarteko Proiektuen Laborategia II. 4 kreditu
- . Dantzari Aplikatutako Teknologia. 4 kreditu
- . Proiektuak Prestatu, Kudeatu eta Gauzatzea II. 6 kreditu
- . Ikerkuntzaren Metodologia. 2 kreditu
- . Kanpoko praktikak. 10 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 7 kreditu

LAN IRTEERAK

- . Interpretatzailea.
- . Konpainiako zuzendaria.
- . Koreografoa
- . Dantzarien prestatzaile fisikoa
- . Irakaslea

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZENTROAK

- * Dantzerti.(Bilbao)
- * Alacant-eko Goi-mailako Dantza Kontserbatorioa.

- * Ángel Pericet Malagako Goi-mailako Dantza Kontserbatorioa.
- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Valentziako Goi-mailako Dantza Kontserbatorioa.

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Dantzerti](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

DISEINU GRAFIKOKO GRADUA

Ikasketa hauen helburu nagusia diseinuaren profesionalak sortzea da. Profesional hauek, industriako zerbitzu eta ekoizpenaren sorkuntza, garapena, erabilera eta kontsumoa hobetu beharko dute. Horregatik, diseinuko ikasketa hauek, gaitasun artistiko, teknologiko eta pedagogikoak garatuko dituzte, eta baita ikerkuntzarako trebetasuna ere.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorako en sarbide-proba.

SARBIDE-PROBA

Ikasketa hauen sarbide-probaren helburu nagusia ikasleen heldutasuna, ezagutzak eta ikasketak probetxuz burutzeko gaitasuna ebaluatzea da. Sarbide-proba gaintitzeak ikasketa hauek egiten diren estatuko edozein zentrotan sartzeko aukera emango du.

Bi ariketaz osatutako proba baterako deialdia egingo da urtero:

1. Lehenengo ariketan ondorengo materiak ebaluatuko dira: Gaztelera eta Literatura, Historia, Matematikak, Fisika eta Kimika eta Atzerriko Hizkuntza. Ikasleak haueetatik hiru aukeratu beharko ditu eta gehienez ere 60 minutu izango ditu irakasgai bakoitzaren azterketa burutzeko. Berezko hizkuntza duten komunitateek lehenengo ariketa honetan hizkuntza horren azterketa egiteko aukera izango dute.

2. Bigarren ariketak bi zati izango ditu:

a) Ikasleak hiru dimentsioko modelo baten adierazpena egin beharko du, marrazketa artistikoko teknikak eta adierazpen teknikoko lengoaiak erabiliz. Ariketa honek, gehienez ere, bost ordu iraungo du.

b) Kolore konposizio-ariketa, teknika librea erabiliz. Ariketa honek, gehienez ere, ordu bete iraungo du.

Ikasle bakoitzak, gehienez ere, lau aldiz egin dezake sarbide-proba.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Diseinu Grafikoko Gradu ikasketek 4 urte irauten dute eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK (ADGE)

Lehenengo maila:

- . Diseinu-oinarriak. 10 kreditu.
- . Tipografiaren Hastapenak. 5 kreditu.
- . Komunikazioa, Metodologia eta Produktibitatea. 2 kreditu.
- . Marrazketa Artistikoa. 6 kreditu.
- . Irudikapen-sistemak. 6 kreditu.
- . Oinarrizko Kolorea. 4 kreditu.

- . Forma eta Bolumena. 6 kreditu.
- . Teknologia Digitala. 4 kreditu.
- . Arteen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria. 6 kreditu.
- . Diseinuari Aplikatutako Zientzia. 4 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak I. 7 kreditu.

Bigarren maila:

- . Kolorea II. 2 kreditu.
- . Inprimaketa. 2 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak II. 5 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak III. 5 kreditu.
- . Argazkia eta Ikus-entzunezkoak. 4 kreditu.
- . Diseinu Grafikoko Proiektuak I. 7 kreditu.
- . Diseinu Grafikoko Proiektuak II. 7 kreditu.
- . Filosofia eta Estetika. 4 kreditu.
- . Tipografia eta Maketagintza. 8 kreditu.
- . Diseinuaren Kudeaketa. 4 kreditu.
- . Diseinu Grafikoaren Historia. 6 kreditu.
- . Diseinuaren Kultura. 6 kreditu.

Hirugarren maila:

- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak IV. 5 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak V. 5 kreditu.
- . Argazkilaritza. 5 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak VI. 5 kreditu.
- . Diseinu Grafikorako Baliabide Informatikoak VII. 5 kreditu.
- . Diseinu Grafikoko Proiektuak III. 7 kreditu.
- . Diseinu Grafikoko Proiektuak IV. 7 kreditu.
- . Gaitasun Emozionalak Diseinatzaile Grafikoarentzat. 3 kreditu.
- . Diseinu Grafikoaren Kudeaketa. 4 kreditu.

Laugarren maila:

- . Kanpoko Praktika. 18 kreditu.
- . Ikasketa Amaierako Proiektua. 18 kreditu.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN ZENTROAK

- * I.D Arte (Vitoria-Gasteiz)
- * IED Kunsthal Bilbao
- * Alacanteko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Alcoiko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Aragoiko Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Asturiasko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Balear Uharteetako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Castelloko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola

- * Errioxako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Kataluniako Goi-mailako Diseinu eta Arte plastikoen Eskola
- * Madrilgo Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Meridako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Murtziako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Nafarroako Goi-mailako Diseinu Zentroa
- * Orihuelako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Soriako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Valentziako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Zamorako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

KULTURA ONDAREEN ZAINTZA ETA ZAHARBERRITZEARI BURUZKO GRADUA

Gradu berri hau kultura ondareen zuzeneko zaintza nahiz zaharberritzeari buruzko ikasketez eta esku-hartzeko irizpidez arduratzen da. Hori guztia, tratamenduak ipintzeko eta osotasuna zein iraupena bermatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, abileziak eta trebetasunak aplikatuz.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketan 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA UPV/EHUko ikasketa plana

| Ikasmailak | Oinarrizko prestakuntza | Nahitaezkoak | Hautazkoak | Gradu amaierako lana | Guztira |
|-------------------|--------------------------------|---------------------|-------------------|-----------------------------|----------------|
| 1 | 60 | 0 | 0 | 0 | 60 |
| 2 | 0 | 60 | 0 | 0 | 60 |
| 3 | 0 | 42 | 18 | 0 | 60 |
| 4 | 0 | 24 | 30 | 6 | 60 |
| Guztira | 60 | 126 | 48 | 6 | 240 |

* Lehen eta bigarren mailak Arteko Graduaren eta Sorkuntza eta Diseinuko Graduaren berdinak dira.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Artea eta Teknologia I. 9 kreditu
- . Eskultura I. 9 kreditu
- . Irudigintza I. 9 kreditu
- . Irudi Laborategia. 9 kreditu
- . Materialen Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura I. 9 kreditu
- . XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak. 9 kreditu
- . Artearen Historia Orokorra. 6 kreditu
- . Eskultura II. 9 kreditu
- . Irudigintza II. 9 kreditu

- . Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura II. 9 kreditu
- . Teknologia eta Prozesuak. 9 kreditu

Hirugarren maila:

- . Euskarri Desberdinen Gaineko Eskultura Lanen Kontserbazioaren Oinarriak. 6 kreditu
- . Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Kontserbazioaren Oinarriak I. 6 kreditu
- . Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Kontserbazioaren Oinarriak II. 6 kreditu
- . Kontserbazioaren eta Zaharberritzearen Oinarri Zientifikoak. 6 kreditu
- . Kontserbazioaren Teoria eta Esku-hartzeko Irizpideak. 6 kreditu
- . Kontserbazio Materialen Ezagutza eta Aplikaziorako Laborategia. 6 kreditu
- . Proposamen Plastiko Berrien Kontserbazioaren Oinarriak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Euskarri Desberdinen Gaineko Eskultura Lanen Zaharberritzea. 6 kreditu
- . Euskarri Desberdinen Gaineko Pinturen Zaharberritzea. 6 kreditu
- . Kultura Ondareen Azterketa Teknikoa eta Dokumentazioa. Ikerketa eta Metodo Zientifikoak. 6 kreditu
- . Plastika Adierazpen Berrien Zaharberritzea. 6 kreditu
- . Gradu amaierako lana. 6 kreditu

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

LAN IRTEERAK

Graduak eskainitako prestakuntzari esker, honakoak egin ahalko dira: kultura ondareak aztertu, identifikatu, analizatu eta baloratuaz, bere aldaketak diagnostikatzea. Kultura ondareen zaintza eta zaharberritzeko tratamenduak erabaki eta exekutatzeko. Zaintza eta zaharberritzeko proiektuak idatzi, zuzendu nahiz aholkularitza ematea. Ikerketa egitea zaintza eta zaharberritzeko lan-metodologian, kultura ondarearen ezagutzan, bere eraketan eta hondatzearen arrazoiengan.

Era askotakoak izan daitezke gradu honen lan-irtenbideak:

- Zaintze-zaharberritzaile aritzea, bai langile autonomo gisa bai erakunde publiko eta pribatuaren langile gisa.
- Museotako, artxiboetako, eta abarretako bildumen prebentziozko zaintzaren arduraduna, bai langile autonomo bai enpresa batentzat soldatuko langile gisa.
- Erakusketen muntaian, artelanen garraioan, eta abarretan aholkularitza ematea.
- Zaintza eta zaharberritzeko tratamenduei buruz eta kultura ondarearen zaintza-egoerei buruz aholkularitza ematea.
- Ikerkuntza programa eta proiektuetan parte hartzea.
- Irakaskuntza.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)
- * Bartzelonako Unibertsitatea

- * Granadako Unibertsitatea
- * La Lagunako Unibertsitatea
- * Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea
- * Sevillako Unibertsitatea
- * Valentziako Unibertsitate Politeknikoa

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea

MODA DISEINUKO GRADUA

Moda diseinuko ikasleak lanbidearen berezkoak diren gaietan sakonduko du, hau da, patroigintza, ebaketa eta jantzigintza, estilismoa, ilustrazio eta marrazketa teknikak eta diseinua. Halaber, sektorean aritzeko ezinbestekoak diren teknika osagarriak ezagutuko ditu: marketina, argazkilaritza edo joeren analisia, esaterako.

Honekin guztiarekin, tituludunak jantzien diseinu eta elaborazio originala lortzeaz gain, bezeroaren beharrak eta industriaren funtzionamendua ulertuko du.

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorako en sarbide-proba.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Moda Diseinuko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK (Nafarroako Goi-mailako Diseinu Zentroa)

Lehenengo maila:

- . Oinarrizko Diseinua. 6 kreditu
- . Oinarrizko Proiektuak. 6 kreditu
- . Irudikapen Sistemak. 6 kreditu
- . Marrazketa eta Teknika Grafikoak. 6 kreditu
- . Kolorea. 4 kreditu
- . Espazioa eta Bolumena. 6 kreditu
- . Lengoia eta Teknika Digitalak. 6 kreditu
- . Argazkilaritza eta Ikus-entzunezkoak. 4 kreditu
- . Diseinura Aplikaturako Zientzia. 6 kreditu
- . Arte eta Diseinuaren Historia. 6 kreditu
- . Ingeles Teknikoa. 4 kreditu

Bigarren maila:

- . Ehun-egiturak, -zuntzak eta Materialak I. 6 kreditu
- . Moda Diseinura Aplikaturako Teknologia Digitala. 6 kreditu
- . Fabrikazio Prozesuak eta Teknologia. 6 kreditu
- . Patroigintza I. 6 kreditu
- . Jantzigintza I. 4 kreditu
- . Moulage Tailerra. 4 kreditu
- . Moda Diseinuaren Historia. 6 kreditu
- . Jantzera eta Moda Diseinuko Proiektua I. 8 kreditu
- . Jantzera eta Moda Diseinuko Proiektua II. 8 kreditu
- . Diseinuaren Kultura. 6 kreditu

Hirugarren maila:

- . Jantzkeria eta Moda Diseinuko Proiektua III. 6 kreditu
- . Jantzkeria eta Moda Diseinuko Proiektua IV. 6 kreditu
- . Jantzigintza II. 6 kreditu
- . Moda Estilismoa. 6 kreditu
- . Diseinuaren Kudeaketa. 4 kreditu
- . Ehun-egiturak, -zuntzak eta Materialak II. 6 kreditu
- . Moda Diseinura Aplikaturako Argazkilaritza. 6 kreditu
- . Patroigintza II. 8 kreditu

Laugarren maila:

- . Moda Osagarrietako Diseinua. 4 kreditu
- . Diziplinarteko Proiektu Integratuak. 4 kreditu
- . Moda Diseinuaren Kudeaketa. 8 kreditu
- . Praktiak. 12 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 20 kreditu

LAN IRTEERAK

Moda diseinuko graduaren lan irteerak ondorengoak izan daitezke:

- Jantzkeria eta moda diseinua.
- Coolhunter - joeren ikerketa.
- Estilismoa.
- Zuzendaritza artistikoa.
- Antzerki eta zinemarako jantzieria.
- Jantzi-osagarrien diseinua.
- Ehun-diseinua.
- Irudi korporatiboaren diseinua eta kudeaketa.
- Sorkuntza jardueren enpresa kudeaketa.
- Diseinu pertsonalizatu edo korporatiboak.
- Jantzkeria eta moda diseinua jarduera jakinetarako.
- Figurinak
- Jantzigintza eta jostintza neurria.
- Kontzeptu, material, aplikazio eta produktu berrien diseinua, ikerketa eta garapena.
- Ikerketa eta irakaskuntza.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * IED Kunsthal Bilbao
- * Alacanteko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Alcoiko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Antonio Nebrija Unibertsitatea
- * Aragoiko Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Balear Uharteetako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Burgoseko Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Camilo José Cela Unibertsitatea
- * Castelló-ko Goi-mailako Arte eta Diseinu Eskola
- * Errioxako Goi-mailako Diseinu Eskola

- * Juan Carlos Erregea Unibertsitatea
- * Kataluniako Goi-mailako Diseinu eta Arte plastikoen Eskola
- * Madrilgo Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa
- * Murtziako Goi-mailako Diseinu Eskola
- * Nafarroako Goi-mailako Diseinu Zentroa
- * Orihuelako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola
- * Valentziako Goi-mailako Diseinu eta Arte Eskola

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Creanavarra](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA

Sorkuntza eta Diseinuko Gradu berri honek Diseinuaren alorra lantzen du zentzu zabal batean ulertua (diseinu grafikoa, multimedia, produktuarena, eta abar)

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoa.
- Goi-mailako Heziketa Zikloak
- 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu dutenak.

IKASKETEN IRAUPENA ETA ANTOLAKETA

Sorkuntza eta Diseinuko Graduak 4 urte irauten du eta ikasketa-planak 240 kreditutan zehaztuko ditu ikastorduak.

IKASKETA PLANA: UPV/EHUko ikasketa-plana

| Ikasmailak | Oinarrizko prestakuntza | Nahitaezkoak | Hautazkoak | Gradu amaierako lana | Guztira |
|------------|-------------------------|--------------|------------|----------------------|---------|
| 1 | 60 | 0 | 0 | 0 | 60 |
| 2 | 0 | 60 | 0 | 0 | 60 |
| 3 | 0 | 42 | 18 | 0 | 60 |
| 4 | 0 | 18 | 24 | 18 | 60 |
| Guztira | 60 | 120 | 42 | 18 | 240 |

* Lehen eta bigarren mailak Arteko Graduaren eta Kultura Ondareen Zaintza eta Zaharberritzeari buruzko Graduaren berdina dira.

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA ETA NAHITAEZKOAK

Lehenengo maila:

- . Artea eta Teknologia I. 9 kreditu
- . Eskultura I. 9 kreditu
- . Irudigintza I. 9 kreditu
- . Irudi Laborategia. 9 kreditu
- . Materialen Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura I. 9 kreditu
- . XX. Mendeko Artearen Historiarako Sarrera. 6 kreditu

Bigarren maila:

- . Artea eta Teknologia II: Teknikak eta Prozesuak. 9 kreditu
- . Artearen Historia Orokorra. 6 kreditu
- . Eskultura II. 9 kreditu
- . Irudigintza II. 9 kreditu
- . Laborategia. 9 kreditu
- . Pintura II. 9 kreditu

. Teknologiak eta Prozesuak. 9 kreditu

Hirugarren maila:

- . Diseinuaren Historia Orokorra. 6 kreditu
- . Diseinu Grafikoa. 6 kreditu
- . Hiri Espazioa / Ingurugiroa. 6 kreditu
- . Komikia. 6 kreditu
- . Multimedia Sorkuntza. 6 kreditu
- . Proiektuak I. 6 kreditu
- . Proiektuak II. 6 kreditu
- . Proiekturako Baliabideak. 6 kreditu

Laugarren maila:

- . Ikusizko Kultura Garaikidearen Testuinguruak eta Praktikak. 6 kreditu
- . Profesionalizazioa eta Kudeaketa. 6 kreditu
- . Sorkuntza eta Berrikuntza Prozesuak eta Metodologiak. 6 kreditu
- . Gradu Amaierako Lana. 18 kreditu

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania. (OHARRA: Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen)

MINORRA

Ikasleek, egiten dituzten hautazko irakasgaien arabera, honako Minor hauek lortu ahalko dituzte: Irudiztatzeako minorra.

- . Diseinu Grafikoko minorra.
- . Eremu Objektuala: Zeramikako minorra.

LAN IRTEERAK

Sorkuntza eta Diseinuko graduatuek honako eremu hauetan lan egin dezakete: diseinu grafikoa eta ikusizko komunikazioa, objektuen diseinua (teknologia baxuko produktuak), hiriko ingurunea eta espazioaren eremua, irudiztatzea, berrikuntza, irudi, komunikazio zein enpresa alorra edo zeramikaren praktika artistikoa.

Era askotakoak izan daitezke gradu honen lan-irtenbideak:

- Diseinuko estudioak zein enpresak edo publizitateko enpresak.
- Irudigilea, autonomia zein enpresa batean integratutakoa.
- Irakaslea, goi mailako edo erdi mailako ikasketetan.
- Irudi, komunikazio eta enpresen alorrean proiektu berritzaileak garatzen.
- Zeramikarekin erlazionatutako praktika artistikoan, dela bere kabuz dela enpresa batean txertatua.
- Arte grafikoko enpresetan, diseinatzaile gisa edo lantaldeetan integraturik.

IKASKETA HAUEK ESKAINTZEN DITUZTEN UNIBERTSITATEAK

- * Euskal Herriko Unibertsitatea (Leioa)

2024/25 ikasturteko datuak

LOTURA INTERESGARRIAK

[Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila](#)

[Euskal Herriko Unibertsitatea](#)

[Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Info Gaztea